

## INFORMAZIO OHARRA

### **Eusko Ikaskuntza eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa elkarlanean arituko dira Nafarroako toki entitateei lotutako proiektuak garatzeko**

*Hitzarmen bat sinatu dute toki administrazioari buruzko azterlanak egiteko eta landa inguruneko toki entitateei despopulazioaren aurkako proiektuak eskaintzeko*

**Iruñea, 2023ko maiatzak 9.** Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Juan Carlos Castillo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten apirilaren 25ean. Helburu nagusia Nafarroako Toki Administrazioarekin zerikusia duten azterlanak bultzatzea eta landa-inguruneko erakundeei mundu digitalarekin eta despopulazioaren aurkako borrokarekin lotutako proiektuen garapena eskaintzea da.

Esparru horretan, bi erakundeek ekimenak sustatzea erabaki dute, besteak beste, Nafarroako toki entitateen eta haien kolektibitateen beharrak eta erronkak aztertzea eta identifikatzea. Horiek garatzeko, proiektu zehatzak eskainiko dizkiete.

Lankidetzak honen xede diren gaiak Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoak dira, haren ezaugarriak, eskumenak eta erronkak, bai eta toki entitateek beren komunitateen garapenean, aurrerapenean, ongizatean eta kohesio sozialean izan dezaketenez zeregina ere.

Hurrengo hilabeteetan, bi alderdiek adostasunez erabakiko dituzte proiektu zehatzak, bai eta abian jarri beharreko baliabideak eta jarduerak ere: azterlanak egitea, jardunaldiak, hitzaldiak eta mintegiak antolatzea, argitalpenak publikatzea, dokumentuak banatzea edo zabalkunde publikoko ekitaldiak egitea, besteak beste.

Sinatutako hitzarmena indarrean egongo da datozen lau urteetan, eta epe berdinetan luzatu ahal izango da. Urtean behin, gutxienez, Eusko Ikaskuntzako eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak osatutako jarraipen batzordea bilduko da.

## NOTA INFORMATIVA

### **Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y la Federación Navarra de Municipios y Concejos colaborarán en el desarrollo de proyectos vinculados a las entidades locales de Navarra**

*Han firmado un convenio para realizar estudios sobre la Administración Local y ofrecer a las entidades locales del medio rural proyectos contra el despoblamiento*

**Pamplona, 9 de mayo de 2023.** Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, y Juan Carlos Castillo, Presidente de la Federación Navarra de Municipios y Concejos, firmaron el pasado 25 de abril un convenio de colaboración para impulsar estudios relacionados con la Administración Local de Navarra y ofrecer a las entidades del medio rural el desarrollo de proyectos relacionados con el mundo digital y la lucha contra la despoblación.

En este marco, ambas instituciones han acordado implementar iniciativas en ámbitos como el análisis y la identificación de las necesidades y los retos de las entidades locales de Navarra y sus colectividades, a las que ofrecerán proyectos que contribuyan a su desarrollo.

Las materias objeto de esta colaboración se refieren tanto al ámbito de la Administración Local de Navarra, sus características, competencias y retos, como al papel que pueden jugar las entidades locales en el desarrollo, el progreso, el bienestar y la cohesión social de sus comunidades.

En los próximos meses, ambas partes decidirán de común acuerdo los proyectos concretos, así como los recursos y actividades a poner en marcha que podrán consistir en la realización de estudios, la organización de jornadas, conferencias y seminarios, la edición de publicaciones, la distribución de documentos o actos de difusión pública, entre otras.

El convenio tendrá vigencia durante los próximos cuatro años prorrogables en iguales periodos. Al menos una vez al año se reunirá la comisión de seguimiento compuesta por representantes de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y de la Federación Navarra de Municipios y Concejos.